

EAJ-EA KOALIZIOA. Alderdietako zuzendaritzek nork bere aldetik aztertuko dute gaia bihar

Jarrerak hurbildu dituztela dio EAK, eta erantzunaren zain dagoela EAJk

Adostasunik ez zuten lortu bi negoziazio batzordeek atzo Bilbon egindako bileran

Imanol Murua Uria | DONOSTIA

Erabaki zehatzik hartu gabe altxatu ziren negoziazio mahaitik atzo ere EAJko eta EAKo ordezkariak. Datozen udal eta foru hauteskundeetan koalizioa osatzeko irizpideez adostasunik ez zuten lortu atzo goizean Bilbon egindako bileran, eta alderdietako zuzendaritzek nork bere aldetik bihar egingo dituzten bileratan aztertuko dute auzia berriro.

Bi alderdietako negoziazio ordezkarietako iturriek EGUNKARIA-ri azaldu ziotenez, EAJk joan den astelehenean egindako bileran aurkeztutako proposamen bera eraman zuen atzoko bilkurara, eta EAK, berriz, bereari aldaketa batzuk egin zizkion.

Araban eta Nafarroan zerrendak osatzeko irizpideei buruz jarrerak oso hurbil daudela adierazi zuten EAKo iturriek, Bizkaian «lan handiagoa» egin behar dela oraindik, baina zailtasun handienak Gipuzkoan daudela. «Hogei bat herrietan ditugu desadostasunak», adierazi zuen Begoña Lasagabaster EAKo diputatu eta negoziazio batzordeko kideak. Dena den, akordioak osoa behar duela eta «denak egoki etorri» behar duela zehaztu zuen.

Eusko Alkartasunak atzo egindako proposamenarekin «jarrera hurbilketa» bat izan dela adierazi zuen Lasagabasterrek. Bere hitzetan, hautagaitzetan «alderdi bakoitzak gaur egun duen egoera islatzea» da Eusko Alkartasunaren proposamenaren helburua.

EAJren jarrera

EAJko ordezkariarentzat, orde, mahai gainean proposamen bakarra dago une honetan,



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Onintza Lasa eta Rafael Larrea EAKo batzorde negoziatzaileko kideak, joan den asteko agerraldi batean.

EAKen planteamenduari dagokien ezezkoa adierazia baitiote jeltzaleek. EAJk joan den astelehenean bilerara eraman zuen proposamenari EAK zer erantzungo dion litzateke orain kontua, honenbestez.

Joan den abenduan bi alderdien arteko negoziazioak eten ondoren, lurraldez lurralde jarrerak hurbiltzeko saioak egin zituztela azaldu zuten EAJko iturriek, eta jeltzaleek aste honetan egindako proposamenak lurraldeetan «onarpen maila oso zabala» duela. Eusko Alkartasunako batzorde negoziatzaileak EAJren proposamenarekin bat ez datorrela adierazi duen arren, euren proposamena «adosgarria» dela uste du EAJk, «lurralde mailan jada adostasun handia lortu duela».

EAJko ordezkariak dio «jarrerak hurbiltze aldera ahalegin handia» egin zuela abenduan

HURBILTZEA

Araban eta Nafarroan adostasuna hurbil dagoela dio EAK, eta zailtasun handienak Gipuzkoan daudela

negotzioak eten zirenetik elkarriketei berriro heldu bitartean, eta orain EARI dagokiola erantzutea.

EAJren ustez, EAK atzo egindako eskaintzan 1999ko *statu quo*-ra itzultzeko nahia dago eta, jakina denez, zenbait kasu-

tan 2000ko hauteskunde orokorretako emaitzak izatea erreferentzia eskatzen du EAJk, 1999ko koalizio zerrendak 1995eko emaitzen arabera finkatu zirelako.

EAKen ustez, berriz, EAJren eskaintzan, Gipuzkoarako proposatzen dituen irizpideetan batez ere, EAK erakundeetan gaur egun duen presentzia murrizten du.

Bi alderdietako zuzendaritzek bihar egingo dituzten bileratan aztertuko dute berriro gaia. Negotzio batzordeen arteko beste bilera bat noiz egingo den ez dute oraingoz zehaztu.

EZKER ABERTZALEA

Batasunarekin «hauteskunde harremanak» etetea erabaki du Aralarrek

Erredakzioa | DONOSTIA

Aralarrek «Batasunarekin hauteskundeei buruzko harremanak» etetea erabaki du, Batasunak atzo prentsa ohar baten bidez jakinarazi zuenez. Batasunaren arabera, Aralarrek idatzi baten bidez eman dio erabakiaren berri. Idatzi horretan, «Arnaldo Otegi eta beste elehun batzuek egindako adierazpenak aztertu ondoren» hartu du erabakia Aralarren zuzendaritzak.

Batasunaren iritziz, orde, erabakiaren erantzukizuna Aralarri dago osoki. Patxi Zabaletak «birritan» Aralarren helburua «Batasuna bozkaz hustea» dela esan izan duela gogorarazi du Batasunak. Prentsa oharrean dioenez, legez kanporatzearen ondorioz «Batasunak hauteskundeetan aurkezteko aukerarik izango ez duela» Aralarrek horrelako erabakia hartzea «ulergaitza eta zentzugabea» egiten zaie.

Legez kanporatzea dela eta Batasunak alderdi eta sindikatuarekin batera martxan jarri duen protokoloaren aukerari Aralarrek ezezkoa eman diola adierazi du Batasunak. «Euskal Herriaren eraikuntzan herri bezala jokatzeko eta alderdi interesak bigarren mailan uzteko» borondatea agertu du Batasunak oharrean.

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

EGA

2003KO 1. DEIALDI IREKIA

Matrikula-epaia: urtarrilaren 20tik 31ra, biak barne. (Gipuzkoan urtarrilaren 21etik otsailaren 3ra, biak barne).

Zenbat: 12,02 €

Non matrikulatu: Hezkuntzako Lurralde Ordezkarietza, ohiko bulego-orduetan.

Azterketa noliz:

1) Atariko proba: martxoaren 8an.

2) Proba idatzia: martxoaren 22an Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. martxoaren 29an Gipuzkoan.

3) Ahozko proba: maiatzaren 23, 24, 30 eta 31n.

Azterketari bakoitzak hiru alditan joan beharko du aztertzera, adieraziko zaizkion egunetan, aurreko probak gaindituz gero.

bagare eraiki dezagun

urtarrilaren 24an, ostiralean gaueko 12:30ak arte

KUTXI KALEKO TABERNETAN eta TXAPELARRI tabernan gau osoa.

Erosi zure edalontzia eta hartu zure poteak

5 euro = 8 pote

eta triitixak, txalapartariak, kale antzerkia...

laguntzailea

Egunkaria

laguntza kontu korrantea:

Euskadiko Kutxa Caja Laboral

3035 0080 93 0800045210